


Gurasoentzat

Juantxo txiki

Anes Lazkau'ko



JUANTXO-TXIKI



Anes Lazkau'ko

Gurasoentzat

JUANTXO-TXIKI

ANES LAZKAU'ko

ITXAROPENA ARGITALDARIA - ZARAUZ

LEGEZKO GORDAILLU S. S. 283—69

LEGE-AGINDUAK BETEAK

ARGIBIDEA

errialdea

0.	Atarian	7
1.	Zer ez dan Juantxo-Txiki	8
2.	Juantxo-Txiki'k ba du gorputza	10
3.	Juantxo'k ba du argia beregan	13
4.	Juantxo'ren adimena	18
5.	Oituren frutua degu Juantxo-Txiki	22
6.	Juantxo-Txiki, andere ta robot	25
7.	Juantxo-Txiki, biotz txuri	28
8.	Juantxo-Txiki, inbentore zoragarri	31
9.	Juantxo-Txiki, tximiño	34
10.	Juantxo-Txiki, begi-aundi	37
11.	Juantxo-Txiki, urduri	40
12.	Juantxo-Txiki, persona serioa	43
13.	Juantxo-Txiki, sinisbera	46
14.	Juantxo-Txiki, entzule	49
15.	Seme-alabak maite izan	52
16.	Justiziarekin	55
17.	Apaltasunean	58
18.	Zure antzeko	61
19.	Itxaron bidetik	64
20.	Gogor ta biguñ	67
21.	Poz dario	70
22.	Etengabeko ekiñean	73
23.	Sari ta zigor	76
24.	Juantxo-Txiki Jainkoaren Seme	79
25.	Otoitzean	82

A T A R I A N

J U A N T X O - T X I K I

Zein dan Juantxo-Txiki?
Zure seme-alabak dituzu Juantxo-txiki.
Oiek azi ta ezi, orra or zure lanik ederrena, ga-
rrantzi aundiñekoa ta zallena...
Lan ori nola bete?

* * *

Bein batean Chesterton ingles idazle ospatsuak onela galdetzen zion bateri:

—Juantxo-txikiri latiña erakutziko bazaio, zer da erakusleak lenengo esagutu bear duan gauza?

—Latiña erakustekotan latiña izan bearko du gauz ori...

—Ez, jauna, Juantxo-txikiri latiña erakusteko, erakusleak lenbizi esagutu bear duan gauza Juantxo-txiki berbera da. .

Gurasoak Juantxo-txiki ezi bear du, baña orretarako, ezitzen asi baño len, Juantxo-txiki esagutzen saiatu bearko du.

Ez da lan errexia.

Baña, bidea errexteko, alkarrekin egingo degu esagupide ori.

Goazen, ba, bidean astera.

ZER^ EZ DAN JUANTXO-TXIKI

Asiera asieratik esan dezagun Juantxo-txiki ez dala gizon koxkor bat.

Ez dala gizontxo bat, alegia.

Ona zer esan nai detan: zure semea ez dala zure berdineko, zure antzeko, zure iguala... neurri txikiagoan.

Ez, orixe.

* * *

Ezkurra ez da aritz txiki bat.

Arrautza ez da txori txiki bat.

Xomorroa ez da tximeleta txiki bat.

Aritza ezkurretik sortuko da. Txoria arrautzetik. Tximeleta (pinpilinpauxa) xomorrotik. Baña ez dira gauza berdiñak.

Umea ez da gizon txiki bat.

Ume orretatik sortuko da gizona egunen batean...
baña, gaur ume ori ta ume orrengandik sortuko dan
gizona ez dira berdiñak, guk askotan ala uste arren.

Umea ez da gizona, egunen batean gizon izatera
elduko diran indar ta almenak baizik. Gaurko indar
oiek, beren bideetik, ekarriko dute biarko gizona...

Gaurko umea, biarko gizona.

Baña, gaur, ume oraindik.

Gu bezelakoa ez dalako, izaten ditugu ainbeste
eragospen gure umea esagutzeko. Esagutu nai ba de-
zu, ekín zure urteetan atzera zure ume denborararte.
Nolakoa ziñan orduan? Alakoa da zure Juantxo-txiki.

Atzeraka joate ori ezin ba dezu, irakurri umeari
buruz dauden liburuak ta entzun besteak zer esaten
dizuten.

Zuri laguntzarren ekingo diogu lanari.

JUANTXO-TXIKIK BA DU GORPUTZA

Azal batean bildutako gorputz edo soiña.

Ezurrez, kirioz, aragiz egindako gorputza...

Baña gorputz ori ez da aragi illa, bizia baizik ..

Soiñ ori bizirik dago.. Aragitik aparte ba du beste zer edo zer ere gorputz orrek...

Soiña, lurrezkoa.. beste zer edo zer ori, nunbaitekoa...

Soiñaren lendabiziko lana aztea da.

Arbol ta zugaitzak azten diran bezela.

Ezkurretik sortutako aritza aunditzen dijoan bezela, lur azpitik eta lurgan[^]tik.. Eta azi bear onek garrantzi ta inportantzi aundiak ditu, egunen batean gure aritza zugaitz lerdan ta sendo izango bada...

Juantxo-txiki Don Juan Lerdan izango badegu, bere gorputzaren azi bear oneri begiratu bearko diogu.

Gorputzaren azteak bide berdin xamarrek erabiltzen ditu ume geienetan diferentzi aundirik gabe.

Azte ori une batzuetan bizkorra izaten da.

Beste unetan, berriz, geldoa.

Bide-tarte batzuek presaka egiten ditu; beste batzuek, berriz, geldiro... Batzuetan, bizkorrean; bestee-tan, lasaiago... Azi ta azitakoa sendotu; orra gorputzaren jokabidea. Dana aztea balitz, gorputza makaldu egingo litzake; baña, lan biak txandaka egiten ditu, luzatu ta sendotu.

Au gurasoak ondo asko dakizuten gauza da.

* * *

Eta gauzak orrela izateak, zer erakusten digu?

Umearen gorputza bizkorrean azten dijuanean, bere indar geienak gorputzari ondo azten laguntzeko bear dituala...

Eta une oietan, bestelako lanak (ikastola lanak esate baterako) ez dirala geiegizkoak izan bear... Geiegizkoak ba lira, gorputzaren kontra ekinko luteke...

Lana beti neurrian bear du umeak, baña batez ere, une oietan, gorputza goraka dijoakionean.

Biarko zugaitza ez gaur ondatu.

Biarko gizonen gorputza ez gaurko lan geiegiakin ondatu... Geroko gorputza sendoa izango ba da, gaur neurriak artu . Gaurko umearen gorputza arbola gaztearen antzekoa da. Arbola gaztean oker txikia, oker

aundia da gerorako; arbola aundian, berriz, oker txikia beti izango da txiki.

* * *

Ona gorputzaren luzatze-txanda oiek nola joaten diran gutxi gora bera:

Bizkorrean, lendabiziko lau urteetan.

Geldirago, lau urtetik zazpira.

Bizkorrean, berriz ere, zazpitik amarrera.

Geldirago, amarretik amabi edo amairura. .

Andik aurrera, bizkor. gorputza bere neurrira elduko dan arte.

* * *

Aldaketa auek gogoan izan bearko dituzu. Gorputza, bere etorkizuna preparatzen, lanpetuta dabillean, umea nagi ta indarge dago... Eziozu orduan alperra danik arpegira bota, naiko lanak ba ditu bere barruan da. Nola nai dezu ikazkizunetan indartsu ta kementsu jokatzea, dituan indarrak gorputza azteko ta jasotzeko bear ba ditu?

Izan berarekin begirune ta konprensio pixka bat, zure automobillari diozuna gutxienez Automobilla, leporaño kargatuta, aurrera eziñean ba dago, ostikoka ekiten al diozu?

Atomika aro onetan umeeri geiegi eskatzen diegu nola etxean, ala eskolan ta kalean... Irakasleak gaizki ez gelditzearren: gurasoak beren seme-alabak beskeenak baño gutxiago ez izatearren ta gizarteak arduraga bekeriz, gure umien osasuna ondatzen ari gerala esango nuke...

Guraso, gai oneri buruz ez dizula arrokeriak begiak itsutu.

JUANTXO'K BA DU ARGIA BEREGAN

Soña bakarrik ez du Juantxo-txikik.

Gorputz orren barrenean ba du bizia ere. Nola^
koa bizia izan ere!

Ez bakarrik aziarasten dion zugatzaren bizia...
Parre dagioten begi urdiñ oiek ba dute bezterik...

"Ti-kaja txurian txuri.
dan bezin luzea,
ikusten al dezu, ama,
aingeru zurea?"

Negarra legortu,
biotza bizkortu,
begira zerura
ikustera,
zure aingerutxua
nun dan...".

Zugaitza lez azi, abereak lez senti, aingeruak le?
pentza ta maita.

Orra zenbait gauza!

Orra Juantxo-txiki zurea.

Animalia ta aingerua; soña ta gogoa; gorputza ta
anima...

* * *

Soña ta gogoa biak alkarrekin bizi dira; alkarren-
ganako eginda daude.

Gorputzaren leioetatik begira daukagu bere anima,
bere gogoa...

Gorputzaren leioak, sentiduak dituzu.

Ta umearen leiorik zabalenak aukeratu dira: be-
gi-belarriak.

"Umeak zer ikusi, ura ikasi". Esaera zaharra.

Egia da ume jaio-berriak ez dula, bere inguruko
gauzak esagutzeko, gorputzaren azala baño beste bi-
derik. Orixe da bere leio bakarra. Baña bereala iriki-
tzen zaizkio belarriak eta begiak.

Ume jaio-berriaren esaguerari buruz, ona zer dion
Spoch jakintsuak: —"Sei illabete ezkeror ez luke
umeak bere gurasoen gelan lorik egin bear... Berak
sentitzen dituan zenbait gauzek nerbioso jartzen bai
dute umea... Esnai dagoanean gertatu oi zaio ori; ba-
ña baita lo ba dago ere. Esan detana garrantzi aundi-
koa dalako, berriz ere esango dizutet esan dedana; ez
eukitzeko umerik zuen gelan, aparte baizik. Umea
jartzeko beste tokirik ez bazenduteke, zuen ta bere
oien tartean esi edo bionbo bat ipiñi...".

Orra umearikiko arazoetan jakintsua dan gizonak esandakoa.

* * *

Ikasteko, begiak irikitzea naikoa du umeak.

Zure Juantxok zer ikusten du bere inguruan? Juantxoren ingurua bere etxea da. Zer ikasiko du Juantxok bere etxean? Bere gurasoen bizimodua ikusita, zer ikasiko du?

—"Ez, baña gure Juantxo oso umea da".

Entzun dezu Soch jaunak zer esan duan. Nik nere konlutik beste zer ezo zertxo bat geiago esango dizut: zure semeak, alegia, begiak irikita dauzkala. Ba dua-la, gañera, bere barruan, zineko pantalla baten antzekoa ta bere memorian gordetzen dituan gauzak, pantalla orretan ikusten dituala berriz berari gogoak ematen uionean... Gaur ez da konturatzen gauza oiek zer diranik; etorriko da, konturatuko dan eguna ere...

Juantxo'ren begiak, aurrez-aurre, dituzu.

Kontuz ibilli.

* * *

Belarriak ere ba ditu Juantxo'k.

Belarritik sartzen zaiona, umeari gogoko izateko, berak "ikusteko" modukoa izan bear du gauz ori. Bere imajinazioaren zine-pantalla orretan ikusi bear zuk diozuna; bestela, alperrik arizera izketan, ez dizu jaramonik bat ere egingo...

Silojismo astratoetan ari bazera, alperrik ari zera Obe dezu ixiltzea.

Esan egizkiozu itz konkretoak, ikusten diran gauzen itzak; esaiozu kontutxo bat, bere zine-pantalla orretan ikusteko modukoa... ta ao-zabalik eukiko dezu, zure itzak jan bearrean...

T.B.O., zine, teatro, telebista... oiek dira umea txorabiotzen dutenak.

Zergatik? Ikusten diralako.

Guri berori ere, oietxek gustatzen zaizkigu ta, ortik kontuak atera...

* * *

Ari oneri jarraituz, beste zertxo bat geiago esango degu, aria apur bat luzatuko ba degu ere.

Umeak, bere barnean ikusten duena, oso biziro ta argiro ikusten duala; askotan bere begiz ikusten duena bezin argiro ta biziro.

Ez da, ba, arritzeko bere barruan ikusitakoa, beretik kanpora gertatzen diran gauzekin naastea... Naaste ori dalata, umea gezurra dariola jartzen zaigu noiz-beinka...

Juantxo-txiki, gezur-ontzi.

Baña, amatxo, ez zure semetxoa gezurtitzat artu!

Bere barnekoak eta beretik kanpoko gertakizunak, guztiak dira beretzako egiazko gertakizunak.

Irudimenak naasten du gaixoa. Zer dan irudimenaren frutua ta zer eztan esagutzeko aalmenik ez, askotan.

* * *

Ikaratzeko ipuirik ez kontatu umetxoari. Kontu oiek kalte aundia egingo diote ta. Kontu oien erruz, zenbait gizon bildurti munduan... !

Zuen Juantxo'ren begi-belarriak sendagilleari ikus-tarazi noiz edo noiz beintzat. Ondo ikusi edo entzuten ezpaditu, ez ditu gauzak ondo ikasiko; atzera geldituko zatzu eskolan, ez tontoa dalako, erdi-gorra edo begibista motzekoa dalako baizik.

Ardura eduki bear.

JUANTXO'REN ADIMENA

Abere bizkorrenak ez du, oraindio, parre egiten ikasi; baña ume txikienak, bai.

Umeak eta abereak, animaliak, ba dute alkarren arteko diferentzi bat: parria, parre egitea...

Parre egiteko, adimen tantotxo bat, gutxiena, bear da... Tanto ori palta aberei...

Umeak, ordea, ba du barruko argi-izpi ori.

Ba du adimen ori.

* * *

Lau urte betetzeko asten da Juantxo-Txiki galdezka:

—Aitatxo, ta ori, zergatik?

—Aitatxo, ta bestea, zergatik?

Zergatik au? Zergatik bestea? Zergatik ura? Zergatik onela? Zergatik ala? Zergatik gora? Zergatik bera? Zergatik... ? Zergatik. ? Zergatik... ?

Askotan, txakurren salara bialtzeko moduan jartzen zaigu Juantxo-Txiki.

Egille ta bere egintzaren arteko artu-emanak ikusten asita dago: arotzak ta bere maiak ba dutela alkarrekin zer ikusirik, alegia...

"Zergatik" oiek orduantxe zortzen zaizkio bere barnean... Jakin-miña... Ta orduan jartzen ditu bere gurasoak larri-aldian, bere galderari nola erantzun ez dakitelako.

Ez, iñola ere, gezurrik erantzun.

Galderari erantzuten ez ba dakizu, eztakizula esan, ta kito.

Orduan galdetuko dizu, ea zergatik ez dakizun...

* * *

Umeari adimena zabaltzen dijoakio.

Zabaltzen da argitzen.

Ona ta txarra berdiñ ez dirala, zazpi urte betetze-ko dituanean, konturatzen da. Gutxi gora-bera, zazpi urtekin.

Baña amabiak bete garaian argitzen zaio adimena bereziki.

Argi ori, egunero argiago ta zabalago izango zaio Juantxori, berrogetaka urteak bete arteraño...

Juantxo'ren lenen-aldiko bizi-aroetan (umea ta gastea dalarik) adimena ta sentimena alkarrekin dijoaz... baño sentimena aurretik, bera nagusi dala.

Sentimenaren mende dago Juantxo, adimena indartu artean. Indartze ontan sentimena jua bai zaio

aurretik; baña sentimenak planto egiten duanean, adimenak oraindik bide luzeak egitekoak ditu. Sentimenak planto egiña gaitik, adimena aurrera dijoa ge-roago ta indartzuago Jauntxo'k berrogetaka urteak bete arte. Sentimenak, berriz, ogei urterekin gelditu zan bere muga batean. Andik aurrera ez da sentimenik audituko, adimena audituko ba da ere...

Sentimenaren auditze-muga orretan (ogei urte?) zuzentzen dira zenbait gazte zoro... Sentimenak eraginda ibilli bai dira ordurarte, adimenik ez baluteke bezala... Baña adimena nagusitu danean, etorri zaie burua bere onera.

Txapela erabiltzeko jarri ziguten burua bizkar-gañean. Baña ez orretarako bakarrik. Burua (ta bere adimena) erabiltzekoa da; erabiltzen ezpada ugartu ta motelduko zaigu.

Burua argitzeko bideak ba dituztegu, zorionez, garuko egunean. Bide ugariak eta erosoak.

Adimenakin batera, ba du Juntxo-Txikik bere borondatea ere (bere gogoa, bere naimena...) Bere gogoa besteai, ustarrari antzera, esartzen, titiakin batera ikasten du Juntxok.

Berak nai duan guztian, bere gogora jartzen ba zera, galduta zaude. Bere menpean bizi bearko dezu.

Mimorik ez.

Egiazko maitasunak ez du bigunkeririk maite.

* * *

Juantxo'k, umea dan artean, bearrezkoa du, besteren agindua: besteren menpeko izatea .. Protestak izango ditu noiz beinka; baña, alaz ere, bearrezkoa zaio agindu ori beste batengandik artzea; ez bai du oraindik, bere barruan, artarako indar bereizirik: bere buruari agintzekoa, alegia.

Nor-beremendeko izateko irrika, amabi urtekin sortzen zaio Juantxo'ri. Iñoren menpean egoterik, etzaio gogoko, ordutik aurrera.

Bere buruaren jabe, nai du.

Berak jarriko dizkio aginduak bere buruari.

Barrutik eraginda, ibilli nai du.

* * *

Orixe da, ain zuzen izan ere, bere izate guztiaren elburua: bere barnetik eraginda ibiltzeko egin zuan gizona Yainkoak... Kanpotik eraginda, erlojuak ibiltzen dita, edo robotak... Gizonik, ez luke bear...

Juantxo ez da muñekotzat egiña.

Juantxo libre izateko sortua da. Persona izateko. Personak ez dira muñekoak, "andereak", "andras-koak"...

Gazteen protestak, zenbait alditan, arrazoizkoak dira bere buruaren jabe izateko, eragospena besterik ez baidago gure giza-artean...

OITUREN FRUTUA DEGU JUANTXO-TXIKI

Juantxo-Txiki ere, animalien antzera, oitu egiten da.

Zer egiñaz, zertara oitzen da... Ez al dituzu Zirkoetan animalirik ikusi? Bein da berriz gauza berbera eginda, zenbat gauza ikasten ez ote duten...!

Zer nai dezu Juantxo'k egunen batean egitea?

Gaurtik asi gauza oiek egiñ arazten; oitura oiek sartzen... ta egunen batean egingo ditu. Errez egiñ ere.

Zergatik ez erakutzi onak ba dira?

* * *

Erri bakoitzetan izaten dira jaki bereziak.

Gure artean angulak eta txipiroiak, esate baterako. Ume-umetatik ikusi ta probatu ditugu...

Gure gusiorako jakirik onenetakoak dira; baña gure artera etortzen diran zenbait kanpotarrentzako ez da ala izaten... Ikusiakin bakarrik, atzera egiten dute. . Izan ere, zeñ ez da ikaratuko txipiroien beltza ikusita? Zeñeri ez dio nazkarik emango, kaxuela batean ateratzen dizkiguten bizio txuri aiek?

Len da bizi ikusten dutenai, dudarik gabe... Baña guri aoa larde-dario jartzen digute bata eta besteak... Ume-aroko oitura degulako, gertatu oi zaigu, gertatzen zaiguna.

Geok ere, mundu zabaleko zenbait jakiri, mutur okerra jartzen diogu: Txina'n ainbeste maite dituzten arrautz ustelari, lurreko moxorroei, txori ziriñari... ta abarrerri.

Ez giñan artara oituak, ume-arooan.

Orduan jan giñuztenak, gaur gustokoak ditugu... Eta ori jatorduetan bakarrik etzaigu gertatzen,... Beste zenbait oituretan ere bai.

* * *

Juantxo-Txiki'ri egintza onak egin-arazi.

Orrela, birtute ta on-bide guztien sustraiak umearen biotzean jartzen, landare berriak aldatzen, azi onak ereintzen ari zera...

Beste gauzatxo bat ere ba da Sikolojiak erakusten diguna. Ona emen:

Biotzean sentimentu klase bat sortu-arazi nai ba dezu. sentimentu arreri dagokien egintzak egiñ... ta sortuko da. ekintzatic, sentimentua.

Biotz tristeak, arpegi tristea. Biotz alaiak, arpegi alaiak.

Baña egia da beste aldera ere: arpegi tristeak tristura sortzen dula biotzean; arpegi alaiak, berriz, alaitasuna. . Gauzok onela badira, egite onak sentimendu onak sortuko du barnean; egite gaiztoak, sentimendu txarrak... Umeak egite onak egiten ba ditu, naiz eta sentimendu onaren jabe ez izan, egintza onetik sentimendu onak sortuko zaio... Ondo egiñez, sentimendu onen jabe izango zaigu.

* * *

Norbereburukeririk ba dituzte umeak ere... Nai dutena lortzeko, ba dakite nundik jo... Ta nai dutenik lortzen ez-padute, arrantza ta ostiko astotxoaren antzera...

Gai oneri buru, ez zuen buruak bigundu.

Eutzi zuen erabakiari, buru-bide onekoa bada erabaki ori.

Ez makurtu Juantxo-Txiki'ren naira.

Makurtzen ba zera, nai ditunak eta bost egiten oituko da Ta egunen batean, illargia berbera eskatuko dizu. Orduan izango dituzu komeriak!

Umearen gogo guztiak betetzen dituzten gurasoak, Juantxo-Txiki'ren oker-biderako ari dira lanean. Juantxo-Txiki'k usteko du bera dala munduaren ardatz ta bere gogora makurtu bearko dutela beste gogo guztiak .. Egoista utsa.

Seme bakarren arriskua. Anai-arreba asko diran etxean, norbereburuari eusten ikasten da; bestien eskubideak errespetatzen.. Munduak, ardatz asko dituala, alegia. Ez dala Juantxo-Txiki munduaren ardatz bakarra. Ba diala Miel-Txiki, Jerontxio-Txiki, Mari-Txiki'rik asko bere inguruan berak aña esku-bide dutenak munduaren ardatz izateko.

JUANTXO-TXIKI "ANDERE" TA ROBOT

Umeak, giza-indarra barnean ba dualako, bere bu-ruari eragiteko almena ba du. Ortarako ba da bera kapaz.

Ori ala ba da ere. almen ta kapazidade oiek oso txikiak ditu oraindik. Egunen batian indar oiek zabaldu ta aundituko dira, baña gaurkoz ez dira ez aundi ta ez zabal.

Barruko argal orrek, kanpotik datorren agindua eskatzen dio, Jauntxo-Txikiren motorra martxan jarriko ba da. Umeak, ondo artzen du, bearrezkoa zaion agintze ori.

Baña bearkizun ori ez da izaten beti berdiña umearentzat: zenbat eta umea zaarrago, ainbat eta bearkizuna txikiagoa .. Azten dijoan bezela, urri ta gutxizten zaio umeari besteren agindupean egon bear ori.

* * *

Amabi-amairu urte betetzearekin datorkio umeari aldaketa gogorra, gauza aueri buruz. Bere buruari agintza zaio gogoko ordutik aurrera ta kanpotik datozkion agintzeak ez ditu gogo onez eramango.

Ez ditu, iñolaz ere, nai.

Bere buruaren jabe izaten asteko garaia eldu da Juantxo'rentzat.

Gizon izan nai du. Gizon osoa. Bere barneko askatasunaren jabe dan gizon osoa... Askatasun ori gabe ez bai dago gizon osorik.

Juantxo zapusterik nai ez ba dezute, joko onetan ze jokabide darabiltzuten berarekin, ondo aztertu.

* * *

Zuen seme-alabentzako jo ba du ordu orrek, Yainkoaren gogoko dan bere askatasuna egarriari, ez eragospenik jarri.

Zure gonari ondo lotuta euki ba dutuzu oraiñarte, lokarri oiek lasaitu ta askatasun bidean lagundu... Askatasun ori nola erabili bear duan erakutsi.

Bere biziaren zear, Juantxo'k bere burua berak gobernatu bearko du... Orain bertan ikasten asten ezpada, ez du sekulan ikasiko ta ez da sekulan artarako kapaz izango.

Beren lenengo urteetan ala bearzutelako, zure menpean seme-alabak beti eukitzen ba dituzu, okerra besterik ez diezu egingo jokabide orrekin. Zu personalidade aundiko ta genio gogorreko ba zera, Juantxo beti menpean eukitzearekin, auldu egingo dezu... indarge utzi...

* * *

Bearrezkoa zaio Juantxo-Txiki'ri menpeko izatea.

Bear duan arte, euki menpeko.

Baña bear duan arte eta bear duan eran.

Ortik kanpora, ez.

Robota da Juantxo-Txiki biziaren asieran. Baña robot izateari utzi bear dio bere garaian. Bestela, robot utsa izango litzake bere bizi guztian...

Ba dira baztarretan zenbait gizon ta emakume robot ta "andere" izateari sekula utzi ez diotenak.

Zeñen erruz?

Asko baño geiagotan, beren gurasoen erruz.

Gurasoak beren personalidadea kendu zietelako.

Umeak azitzea, berriz, ume oien biotzetan beren personalidadea sortaraztea da... Sortarazten laguntzea.

Ez det usten lan xeea ta koxkorra danik.

JUANTXO-TXIKI, BIOTZ-TXURI

Umearen biotza paper txuri baten antzekoa da.
Paper txuri orretan zuk nai dituzunak idatzi de-
kezuke.

Onak ala txarrak.

Zuzen, naiz oker.

Zuzen idaztea konbeni.

Zuk, zure etxean, zuzen idazten ez dituzunak,
oker idatziko ditu zure auzokoak Juantxo-Txiki'ren
biotean.

Ez lorik artu.

Ez egon, alperkeriz, eskua eskuen gañean, ezer
egin gabe.

Zuk idatzi edo idatzi ez, etorriko da mundua biotz
garbi orretan bere lerroak egitera...

Zenbait gurasoek, idazte oneri buruz, ez dute se-
kula bere umien ardurarik izan...!

Jaten da edaten emango diete.

Jantzi ere bai.

Maixuak eta ikastolak, zorionez, billatzea, zer esanik ez.

Baña, Juantxo-Txiki'ren biotzean, lerroak bere eskuz idazten, ez dira asko nekatuko.

* * *

Gurasoak, zeok daukazute Juantxo'ren biotza, iñork baño egokiago, zuen eskuetan.. Biotz orretan, sekula galduko ez diran lerroak, arrastoak, zeok markatu bearko dituzute...

Bestela, galduak zerate.

Ez dakizutela ere, umea jaio aurretik asten zerate, lerroak idazten ta markatzen .. Zuen bizi modua nolakoa, alako arrastoak.

Onak? Txarrak?

Zuzenak? Okerrak?

Begiratu bat eman zuen bizikerari. Eskon aurreko bizikerarekin batera asten zerate Juantxo-Txiki'ren biotza markatzen.

Biberoia ta titiarekin batera segitzen dezute idazte-lan orreri...

Ondo ala gaizki?

Gurasoak gaizki idatzitako lerro ta markak zuzentzea, ez da gauza errexia izaten, zoritxarrez...!

* * *

Zenbait amaren magaleetan sortu ez diran bai santutasunerako, bai txarkerirako bideak ..!

Margarita, bere ama alargunaren besoetan sortu zan San Juan Bosco'ren santutasunerako bidea, Don Bosco berak dionez. Frantzi'ko San Luis erregeak beren amaren aotik ikasi omentzuan okerbidetik aldeegitea. Lissieux'ko Terese Doneak, bere aita alargunari zor zionak agertzen digu...

Orra ale lodi batzuek aukeratu, gure esana argitzeko.

Baña bakoitzak dakigu, gure gurasoei zor diogunaren berri...

* * *

Zure Juantxo-Txikiaren biotz garbi orretan, onbide guztien lerroak idazten ez beñ ere aspertu...

Aukera ba dezu.

Ez aukera ori alperrik galdu.

Zure semearen biotza argizari biguña da ta zure eskuetan daukazu... Geroago, gogortuko zaitzu. Zuk nai dituzun arrasto onak markatzea ez da aiñ errexazango orduan.

Onak diran señaile guztiak markatu itzatzu, aukera dezun artean.

Gero, aukera galtzean, alperrik izango dezu, negar egitea.

Arbola gaztea, biguña dan artean, zuzen, errex eramaten da .. baña okertuta zahartzen ba da, ez du sekula iñork zuzenduko... Lenago ausiko da, zuzendu baño.

* * *

Onaren izena idazten dezunean Juantxo-Txiki'ren biotzean, arpegi alai ta maitekorra kin idatzi izen ori.

JUANTXO TXIKI, INBENTORE ZORAGARRI

Umeak ba du bere buruan zineko pantalla zoragarria.

Beñ ikusitako guztia, bere imajinazio-pantalla orretan berritzeko aalmenak ere ba ditu berarekin. Guztia osorik ala pusketaka.

Ikusitakoa berriro ikusi.

Beñ ikusitako gauzeekin, gauza berriak sort-arazi.

Orra Juantxo'ren bi zeregiñ.

Nola ekiten du, bere barruan, gauza berri oiek sort-arazteko?

"Rompecabezas" baten antzera jokatuta.

Beñ ikusitako gauza desberdiñen pusketak aUsarri josita.

* * *

Bere buruan orrela sortutakoak, bere begitik ikusitakoakin askotan naasten ditu Juantxo-Txiki'k.

Ta naaste orretatik datorkio egia konfunditzea.

Ez daki ez egi ori kanpotik sartu zaion, ez bere barruan sortutakoa dan.

Ortik, Juantxo-Txiki gezurti.

* * *

Inbentatzeko errestasuna ba duala Juantxo'k.

Aurrean ez ditunak, ikusteko ere bai.

Bere barruko pantalla orretan ikusten ditu kanpotik ikusten ez diranak. Sukaldeko aulki zarrean, autobusa edo ta egur itxuragabekoan, itsas-ontzia ikusteko, ba dula errestasuna, alegia.

Bere andere, andrako ta muñekoak jan da lo egiten dutenak dituzu... poz ta miñ artzen dutenak...

Berak bizi-arazten ditu bere imajinazioan...

* * *

Juantxo'k gezurrik esango ba lizu, ez gezurtitzat artu, guk emen esandakoa, begian aurrean euki gabe...

Gezurra ala bere barruko naastea ote du?

Injustizirik, ez...

* * *

Esaten diozun guzia, sinistuko dizu Juantxo'k.

Berarentzat ez dago eziñik: sorgiñak, ireltxoak, praka-gorriak, lamiñak... guztiak dira beretzat izaki bizi-biziak...

Seme-alaberi ez gezurrik esan.

Egi diranak, egi bezela ..

Kontu diranak, kontu bezela...

Ez naastu egiak kontuekin. Kontua dana egitzat emanda, biak naasten ba dituzu, gezur esango diozu ta gezur esan diozula, egunen batean, konturatuko da.. Egun artatik ez dizu ez konturik, ez egirik sinistuko... Bere gurasoengan zuan siniste osoa bat-batetik galduko du.

Batez ere, Bibliako egiak eta sorgin-koturik ez alkarrekin naastu...

* * *

Jolasak oso gogoko zaizkio Juantxo'ri.

Baña jolasetan dena eginda artzerik etzaio ainbeste gustatzen. Naiago du bere aldetik zer edo zer jartzea jolasean...

Amar milla jostallu polit geldoekin baño obeto dabill Juantxo upel zaar baten kurpillekin korrika kalean...

* * *

Bere buruan bizi ditunak oso biziro bizi ditu Juantxo'k.

Bizitasun ortatik sortzen zaio umeari, bere barneko bizitze oiek egiteko irrika.

Ideak eta gogaketak egintza-bidean jartzen gaituzte geu ere, nagosiak eta geure buruaren jabe izan arren. Ori guri gertatzen ba zaigu, areago gertatuko zaio oraindik, bere buruaren jabe ez dan umeari.

JUANTXO-TXIKI, TXIMIÑO

Gizonak egiten duna egiten saiatzen da tximiñoa...
Umea ere, zure inguruan dabill, zuk zer egingo,
uraxe egiteko...

"Umeak zer ikusi, ura ikasi"...
Ta umeak zer ikasi, ura egiñ.

* * *

Zenbat eta umea umego, ainbat eta, esan deguna,
egiago. Personalidaderik ez dualako da tximiñoa, imi-
tatzalle. Beste orrenbeste gerta oi zaio umeari ere:
zenbat eta persona txikiago, ainbat eta imitatzalle aun-
diago.

Ejenploak indar aundia du.

Baña personalidade gutxien dutenentzat, indar
aundiena.

Ta Juantxo-Txiki'k personalidade gutxi duela, agi-
rian dago.

* * *

Zuk, guraso orrek, umien aurrean egiten dituzu-
nak, gauza oiek berberak egiteko gogoia ta irrika sor-
tuko diote Juantxori barnean...

Gogo bizia.

Ta gogo orrek eraginda, zuk egiten dituzunak egi-
ten saiatuko da. Zer ikusi, ura ikasi.

Zer ikasi, ura egiñ.

Orra Juantxo Txiki'ren jokabidea.

Sesenak izan al dira errian pestetarako?

Ondoren, sesen adarrak ikusiko dituzu umien es-
kuetan jolaserako...

Ezpata-burrukak ikusi al ditu zinean?

Laister izango dira egur-ezpatak burrukarako,
umien artean...

Ejenploaren indarra.

Era berean gerta oi da ideakin ere.

Buru-barruko idea, imajiña ta gogaketa utsak sor-
tzen digute irrika bat gogoan: pentzakizunak egiten
asteko gogoia. Pentzamentu utsa, egite biurtzekoa.

Pentzakizunak biziak ba dira, irrika biziagoa ta
gogoia, aundiagoa.

Bizitasunaren neurriz, aunditasuna.

Beste aldetik, berriz, personalidade txikiak, irrika
aundiago.

Juantxo-Txiki'k personalidade eskaxa ta gogaketa biziak ditu berarekin orregatik izaten du, bere barneko imajiñak egintzetan betetzeko gogo bizia...

* * *

Gai oneri buruz, ona bi erakutsi gogoragarriak:

Lenengoa:

Arduraz begiratu umien aurrean zer egiten dezuten... Egiten dezutena egiten saiatuko bai da.

Bigarrena:

Ze historio ta kontu esaten diozuten kontuan artu... Juantxo-Txiki'k kontu oiek egintzetan imitatu-ko bai ditu.

JUANTXO-TXIKI, BEGI-AUNDI

Juantxo-Txiki oso txikia da, bere burua aundi iruditzen ba zaio ere.

Gauza guztiak oso beetik ikusten ditu.

Orregatik, dana ikusten du aundiro... Gauza guztiak, bere burua zer esanik ez, oso aundiak iruditzen zaizkio.

Dana aundi zaiola esan degu.

Dana zer da?

Ba, orixe, dana: dan guztia. Bai gizaki ta bai abere; bai sentimentu ta bai ekintza... Bere barneko ta bere kanpoaldeko gauza guztiak...

Juantxo-Txiki'rentzat dana da aundi, bera txikia dalako.

Ikusten ditunak amentuzko kristalakin begiratzten ditu, amentuzko begi aundiak balitu bezela.

Ta alaxe ditu, euki ere.

Gure asarre-kiñu txikiena ere bildurgarrizkoa iruditzen zaio Bera zenbat txikiago ta areago.

* * *

Aundiak ditu begiak, baña sentimena ta gogorarena aundiagoak oraindik. Ortik kontuak atera bear ditugu, berarekin erabilli bear degun begirunea zenbatañokoa izango bear duan gogoratzeko.

Umearen barrena, ari-matasa delikadu ta biguñia dezu. Biguñ eta legun jokatu bear Juantxo'rekin. Indarrez ari ba zera, urratuko dituzu ari mee argal oiek...

Botella bat ardo puskatu duala ta, negarrari emango dio, oker izugarriren bat egin ba lu bezela... Margodun estanpatxo ematen diozu, ta an dijoa pozik urregorizko pitxi bat eman ba ziñun bezela... Txakur txuria iltzaiolako, urte askotarako naigabearen arrastoa eramango du berarekin...

Dana da aundi beretzat.

Dana zoragarri, edo izugarri.

Juantxo, begi aundi.

Juantxo, sentimen aundi.

* * *

Zenbat Juantxo txikiago, ainbat kontu geiago izan bearke dezu berarekin.

Ez asarratu, ez garaxirik egin... "basajauna"ren aurrean dala usteko du ta...!

Ez jo!

Goxo tratatu ta erabilli.

On bidea gozoki erakutsi.

Yainkoarekiko artu-emanak xamurki ta pozgarri
azaldu...

* * *

Bildurrik ez sartu umeari biotzean.

Kalte egiten diote Juantxo'ri bildurgarrizko kon-
daira ta esaerak.

Kalte izugarria.

Kontu oiek diala ta eziala, zenbat bildurti ote da-
go munduan ! Barneko zauri oiek etzaizkio Juan-
txo'ri sekulan oro bat sendatuko... Zenbat bizi guzi-
rako konplejo, umeari emandako tratu txarretik, sor-
tzen ote dira... !

Zuentzako gauza txikiak izan arren, Juantxo'ren-
tzat aundiak dirala gogoan izan...

Ez altzabiltzate zuen umien onaren billa?

JUANTXO-TXIKI, URDURI

Ikusi al dezu, beñ ere, antxumarik laisterka ta korrika?

Korri ta salto...

Orixo da, titia artu ondorengo bere egun guziko lana...

Ez du beste zeregiñik.

Juantxo Txiki ere antxuma baten antzekoa degu: beti mobimentuan bear.

Geldi egon eziña!

Bere gorputzaren giarrak eta aragiak aziko ba dira, mobimentua bearrezkoa dute... Beti ari ta ari... Arian azten bai dira...

Giarrak egun guztian azten daudenez, egun guztian ari bear ari ta ari... Nola naizu Juantxo-Txiki geldi eukitzerik... ?

Zijiea gogoko zaio umeari, zineko irudiak aridiralako, mobimentuak diralako... baña bere burua erabiltzea ta mogitzea, askoz geiago gustatzen zaio oraindik.

* * *

Umearen iritzirako, eriotza, geldi egotea da... Geldi dagoana, ilda dago.

Ta bizia zer dan? Zer edo zertan aritzea, orixe da bizirik egotea...

Bizirik dagoalako, arian da Juantxo-Txiki zoriontsu... jplasean, zoriontsu.. ariñ-aringa, zoriontsu...

Ikas-gaiak jolasean erakusten ba diozkatzu, zorionez beteko dezu Juantxo'ren izatea... Ezazula geldirik euki, ildakoa balitz bezela... atzekabetuko dezu goitik beraño... Ikasi ditzala ikastekoak, gorputzakin, edo ankakin edo eskuekin ari dala... Errexago ikasi ta gustorago ariko da lanean...

Ezin da denbora luzean geldirik egon... Ikastolan edo Dotriñan ba dago, zerorrek jarri bearko dezu mobimentuan.. zerorrek (andereño edo katekista) esan bearko diozu zertan ariko dan...

Geldiune ortatik atera zazu len-bailen... berak, berekasa, irtengo du, bestela. Indarrez geldi araztea, illobian sartzea litzake . Eztezu Juantxo illobian sartuta euki naiko... !

* * *

Oker-bidean ari ba da, bidea zuzendu... bidea kentzea baño errexagoa bai da zuzentzea... Bere egon-ezi-

ña arrika eman da lasaitzen dala...? Arrika ari zaizu, ta aldameneko leioak arrixkuan dirala...? Ez arrika egiteko esatea, alperrikakoa izango da ta obe dezu pipar-poto zaar bat aurrean ta eman deiola arrika, zanpatu arterañoko guzian .

Urari presa egitea baño errezagoa bai da kanaletik eramatea... Umearen egon-eziña dezu uraren indarra. . Kanalak iriki eiozkatzu...

* * *

Urduri ibiltzea ta geldirik egon eziña, odoletik sortzen zaiola Juantxo'ri, gogoan izan, begien aurrean euki.

Geldirik dagoan umea gaxorik dezu.

Zaartzaroan etorriko zaio geldirik egoteko txanda...

Bitartean .. dabilela-ibilli.

JUANTXO-TXIKI, PERSONA SERIOA

— "Aizu, Txiki..." Esan nion lengo egunean, bost urte bete berriak zituan Juantxo-Txiki'ri.

— "Ni ez naiz txiki... Txikia nere anaia da... Ni aundia naiz..." Erantzun zidan.

Benetan txikia da Juantxo ta iñoren aginpean egotea bearrezkoa zaio; baña bere burua aundi ikusi nai du... Aundi izatea nai...

Ta bidean dijoa.

Yainkoa'k berberak jarri zuan, sortzetik, bide orretan.

Aundi izateko gogoia, ume txikienean ere, agertzen da tarteka-tarteka... Aundi izatea, norbere buruaren jabe izatea da .. persona izatea... Ortarako jaio da Juantxo-Txiki...

* * *

Bere burua persona serioa bezela tratatua izateko naia ere, ortik sortzen zaio umeari bere barnean... Ortik, zenbait eratako protestak ere... Protesta miña ta gogoia amalau urterekin bizituko zaio; ta agertu, berriz, txiki-txikitatik...

Protesta oien ajolik ez ba dezu ta kasorik egiten ez ba diezu, zuretik aldenduko da Juantxo-Txiki... ta pozik izan egunen batean arpegia emate ez-padizu...!

Asiera-asieratik persona bezela tratatzen ezpadezu zure umetxoa, galduko dezu...

Umea debilla, ergela ta txikia da.

Zure bearrean da.

Baña ez da zure mirabe; ezta zure menpeko animalitxo bat ere.

Ba du barruan argitxoa ta borondate librea. Adimen-argi ori ta bere borondatearen askatasuna, begien aurrean izan bearko dituzu beti. Geroz da geiago euki ere. Juantxo bere bidean aurrera dijoan bezela...

Ez da betirako robot ta andrako...

Robot izatetik, persona izatera aldatu bearko du... zuk lagunduta.

Geroz da libertade geiangoan azita.

Berak bere buruari nola agindu, erakutzita.

Ori izango da umea ondo azitzea...

Ez beti zure menpean eukitzea...

Indarrez.

Indarra da gurasoentzat biderik xamurrena ta errezena; txarrena ere bai.

Beste bide ori da zallena ta gaiztoena gurasoen-
tzat: baña umea aziko badute, orixe biderik onena...

* * *

Gaurko umea, biarko gizona.

Gizon bezela tratatu zazu gaurko ume ori.

Bestela errudun ikusten zaitut askotan... ta Juan-
txo gizon egingo danean, zure erruak gogoan izango
ditu oraindik. ez umeari egindako erruak balitzazke
bezela, gizonari egindakoak baizik.

Umeari egintziñun okerra atzo, baño Juantxo gi-
zonak berari, gaurko gizonari, eginda bezela gogora-
tuko ditu.

Orra korapillo gaitza.

Prolema latza.

Juantxo-Txiki ez da gizon; alaz ere, gizon bezela
tratatu zazu.

JUANTXO-TXIKI, SINISBERA

Esperientziarik ez duelako da aiñ sinisbera gure Juantxo-Txiki...

Esatendioguna sinisteko, beti prest dago.

Batez ere bere gurasoengan du uste oso-osea, ez bai da munduan bere gurasoen añakorik iñor...

Aundienak, indartsuenak, bizkorrenak, jakintsuenak, aberatsenak. beti Juantxo'ren gurasoak. Beste edozeiñ baño geiago. Berak ala sinisten du beintzat eta...

Sinistuko dizu esaten diozun guztia.

Ara Juantxo-Txiki'ren arrebakin zer gertatu zitzaidan bein:

—"Baña, Juanita, zer dala ta egin dezu oker ori?"

—"Ni oso gaiztoa naiz!" —Erantzun zidan Juanitak.

—"Zu etzera gaiztoa...".
—"Bai, bai oso-oso gaiztoa naiz!".
—"Nundik jakin dezu ori?".
—"Danak esaten didatelako eta nere amaxok ere bai...".

Amak esan ezkerok... Juanitak sinistu.

Ta oso gaiztoa zala sinistu ezkerok...okerrak nai ta naiez egin bearko.

Amari arrazoia eman bear... Amaren esanak beti dira egi... ta egiak ba ziran amaren esanak, bera, Juanita, oso-oso gaiztoa zan.. Gaiztoa izanik, zer besterik egin zezakean berak, okerrak besterik... ?

* * *

Juantxo-Txiki ume ona dala pentzatu.

Ta berari esan.

Umeak birtute onak izatea gogoan dezu. Birtute oietan umeari laguntzeko, balitu bezela jokatu bear dezu berarekin. Birtute oiek ba ditula sinistu arazi. Badituala sinisten dezula, agertu.

Juantxo ausartsua izatea nai dezu?

Ausartsua dala esaiozu ta ausartsu bezela jokutzen saiatuko da.

Ona dala esan, ta ona bezela ariko da alegiñetan. Ez esan gaiztoa danik...

* * *

Umeak okerrik egiten ba du, ez pentza gogo okerrakin gelditzen danik betirako.

Okerra egin du.
Baña damutu zaio.
Ta aaztu ere bai.

Argaltasunaren frutua izan du, oker ori... Zergatik pentza bear degu beti, gogo gaiztoaren frutua izan danik... ?

Asarre biziko belarrondoko batek baño obe geiago egingo dio itz gozo batek Gaizki egin duala, adierazi... Eginduen gaizki zergatik dagon, azaldu... Baña goxo, arrazoi bidetik... Ez garraxika ta jipoika... !

* * *

Ondo portatzen ba da, gooratu zure Juantxo.
Baña gorako edo berako itzak, beren neurria izan bearko dute beti.

Geiegizkoa, txarra da.
Geiegizkoan ari ba zera, azkenerako ez dizu kasorik egingo.
Gauzak ba dute beren neurria.
Zaude neurritsu.

JUANTXO-TXIKI, ENTZULE

Kontu-kontari ari zerala, kontulari ona ba zera, zuri entzuten, ao zabalik egongo zaitzu Juantxo Txiki.

Kontulari txarra ba zera, entzunik, ez...

Imajinazioan ikusten diran itzez ba zabiltz, bai, Juantxo'k zure itzak entzun ez baño, jan egingo ditu...

Philosophuen antzera, goiko mallatik ba zabiltz, alperrik ari zera... Juantxo urrutira joana dezu: ba du, bere barnean, mundu ederragorik zuk eskeintzen diozuna baño... An, bere barruan, ditu ark ikuzkizun ederrik... Aiek bai ikuzkizunak, ez zure itz ergel, geldo, astratoak...

* * *

Zuri entzuten ao zabalik egon ba da, zuk bukatzean, ao zabalka asiko da.

Aspertu dalako?

Ez.

Nekatu egin zaigu Juantxo.

Entzule neurri txikikoa degu umea.

Bereala gogaitzen du.

Gogoa, txikia bai du, azkar betetzen zaio: gogoa-
-aitu.

Ao-zabalka batzuek eginda, ustutzen zaio gogoa,
berriz ere.

Ta beñ ustu ezkeru, entzuteko prest dago...

Oloak uda nola edaten du?

Tantoka...

Aurrean daukazun umea, olloa dala, pentza za-
zu.

* * *

Geori ere, aundi izanagaitik, beste orrenbeste ger-
tatu oi zaigu beñ baño geiagotan...

Ezetz?

Jaieko sermoian, nundik zure gogoa dabiUen jakin
nai nuke... Zenbat itzek, belarri-atean joagaitik, ez
dira barrura sartzen...!

Nun dik zabiltz?

—"Ez, ni saiatzen naiz ondo entzuten, baña..."

—"Baña.aria galdu. Eltzen diozu berriro ari-
ri... ta berriro, galdu."

Eldu ta.. galdu.

Galdu ta.eldu.

Gora ta.. beera.

Orra, entzule maitea, zure jokabidea.

Gure entzule almena, entzuteko kapazidatea, itsa-
soko olatuen antzeko da: goraka dijoa, goraño; andik

astenda beeraka, beeraño... Beetik, goraka berriz ere...
Goitik, beeraka...

Eten gabe.

Goraka dijoala, almena gogaitzen zaigu.. nekatu...
Beeko aldean, deskansu apur bat artzen du ta orduan
galtzen degu aria.. gure bidetik ibiltzeko. Ibillaldi bat
eginda, ba gatoz berriz ere bide onera, eltzen diogu
ariari...

* * *

Ori guri gertatzen ba zaigu, ez da Juantxo'ri ger-
tatzea arritzeko... Ari, Juantxo'ri, guri baño areago
gerta oi zaio...

* * *

Juantxo zure entzule ona izatea nai ba dezu, egio-
zu itz gutxi aldi bakoitzetik... itz argiak... begi edo
imaginazioekin ikusteko modukoak...

Aldi bakoitzean, bere neurrian...

Neurri txikian... txikia bai du neurria.

Tartarik gozoena ere, ez degu osorik aldi bakar ba-
tean jango...

Pusketaka bai zik.

Apurka.

Zatika.

SEME-ALABAK MAITE IZAN

—"Baña, zuk ze uzten dezu, gure umeak ez ditugula maite, ala...? Ori ere esan...!".

—"Bai, ori ere esan. Maitatzeko erak asko dira."

—"Taa...?".

—"Tximiñoak, ere, maite dituztela bere umeak..."

—"Gaizki al dago. ?".

—"Maitearen-maitez, bere umea ito zuala tximiñoak, alegia... Ez altzera tximiño izango...!".

* * *

Gauza guziak bezela, maitetasunak ere bere neurria behar du.

Neurririk ez ba'dezu, maitearen-maitez, zeure Juantxo Txiki ito dezakezu...

—"Baña, neurririk ba'da maitasunean...?!":

—"Maitasunean ezpada, maitatzeko moduan, bai...
"Geiegizkoa" ba'da...".

"Nola leike geiegizkorik gure umienganako maitasunean... ?".

—"Maitasuna behar dan bezelakoa baldin ba'da, orduan ezta geiegizkorik egongo; baña, ala ezpada maitasun ori.. Bere amak ito zuan Tximiño Txiki esku artean, ta maite zuelako, ito, ere... Maitetasun orren agerbidea etzan ona izan, ordea...".

Besarkatzea, ona da.

Maitetasunaren agerbide bat da.

Baña.. geiegirik gabe: geiegi besarkadutzen ba'dezu, esku artean itoko dezu Juantxo Txiki.

* * *

Semea maitatzen, bere onaren billa ibiltzea da.

Baña, "bere" ona, azkotan, ez da "zure" ona, "zure" komodidatea, "zure" atsegiña, "zure" arrokeria betetzea, izaten...

Zure "zerekoikeri" ta egoismoak ez dira maitetasunaren neurri egokiak: zeure seme-alaben ona, orra or neurria .

Juantxo Txiki maitatzea ez da zeure burua maitatzea bakarrik... Ez ote zabilta zeure buruaren onaren billa, Juantxo-Txiki'ren maitasuna aitzeki dezula... ?

Bere on utsaren billa ibilli behar dezu: interesik gabe...

Utsik.

Zure ondorenari begiratzeke.

* * *

Era orretara maitatu behar dezu Juantxo Txiki bere biotza irabaziko ba'dezu... Beztela, ez.

Juantxo-Txiki'ren biotza ta konfiantza irabazita-koan, orduan egongo da bera zure menpean.

Pozik egon, ere.

Zure aginduak alaitsu beteko ditu.

Bere onerako.

Maitetasunarekin batera, errespeto ta begirunea zor diozu...

Juantxo, txikia izan arren, persona da, ta errespetoa behar zaio izan...

Bere buruaren jabegai da, ta azkatasunerako egiña.

Errespeto aundia izazu bere eskubide oientzako.

Ez, jo.

Ez beeratu ta zapaldu.

Begirunea ta maitasuna, biak, izan beharko dituzu.

JUSTIZIAREKIN

Justizia ta zuzentasuna, biak, bat dira.
Zuzentasuna, okerretik ez ibiltzea.
Zuzen edo oker, orra ibiltzeko bi era ta modu...
Zuzen ibilli ta zuzen jokatu... okerrera jo gabe,
ori da justiziaren jokabidea.
Juantxo-Txiki'rekin zuzen jokatu.
Berak ba'ditu bere eskubideak, ta eskubide oiek
menperatzea ta zapaltzea, oker jokatzeko litzake...
Bere eskubide guziak esagutu behar dituzu.
Bere eskubideak onartu.
Ta bere eskubide guziak betetzen saiatu.

* *

Umeak buruan argi gutxi izan da, ere, berarekin
oker jokatzeko ari zerala esagutzeko, begiak irikitzea
naikoa du.

Injustiziak ezagutzeko ahalmen bereizia ba'du; or-
tarako, begiak zabaltzea asko du...

Juantsoren biotza irabaziko ba'dezu, bere eskubi-
deak zaintzetik asi bearko dezu... Asko maite dezula
eztiozu, ba... ?

* * *

Umea argala ta indargea da.

Ez orregaitik bere eskubideak oinperatu, bere bu-
rua defenditzeko indarrrik eztualako... Ori egiten ba'
dezu, egunen batean damutuko zaitzu...

Zergatik?

Ze ari zeran berarekin konturatzen dalako.

Ta eguna etorriko da, zu argal ta bera indartsu
izango zeratena... Zure ekintzako modutik ikasiko
du oker jokutzen, zeuk erakutsi bai diozu, ta ordu
artan, bera ere oker jokatzetik ez litzake izango arri-
tzeko.

Zure errukia, egun artakoa.

* * *

Zure umore txarrak ez ditzala umeak pagatu. .
Umearen kaltean ez zure asarrerik lasaitu...

* * *

Seme-alabak ba'dituzu, danekin neurri berdiña
erabilli.

Guztiak maite behar dituzu neurri berdiñean.

Neurri batekin neurtu.

APALTASUNEAN

Semea ondo azteko, arrokeri gutxi.

Arrokeri bidea ez da bide ona.

Oso txarra da.

Arrokeriak utzita, apaltasunean ibiltzen ikasi behar harko dezu, azitzalle ta edukatzalle ona izan nai baldin ba'dezu, beintzat...

—"Zeñek ez du bere umien edukatzalle ona izan nai...?"

—"Nai behartzenduke, beintzat..."

* * *

Baña, apaltasuna jantzi arlotekin agertzen zaigu gaurko egunez. Egia, justizia... ta orrelakoak daude gaurko modan . Apaltasun ta maitasunari, berriz,

Bistan ikusi dedilla neurri ori berdiña danentzat dala...

Beztela jokutzen ba'dezu, burrukaren azia ereinten ari zera zeure umien artean. Ta zertan ari zeran konturatzen dira...

Inbidi ta asarreak sort-arazteko bide egokia...

* * *

Neurri desberdiña erabilli beharko dezu argale-na, gaixoena, atzeratuena danarekin...

Beste guziaz, berdiñ.

Neurri zuzenean ta neurri berdiñean.

giroa aldatu zaie... Ez dute, gaurko gizarte onetan,
girorik...

* * *

Izena ez da izana.

Apaltasunaren izena etzaigu gogoko; izanaren be-
rririk ezpadegu, ere ..

Apaltasunaren izana agertu nai nizuteke.

Apaltasuna zer da?

Zertan dago apaltasuna?

Apaltasuna "egia" da.. Orra or zuk ainbeste mai-
te dezun itza ta izena agertu: egia, alegia.

Egia.

Nun dago apaltasuna?

Arrokeri ta ergelkeriaren tartean.

Bide erdi dago bietatik.

* * *

Arrokeria, gezurra da.

Zeure burua jotzen dezu edertzat, aunditzat, on-
tzat. Neurri geiegian, ordea; ez ba zera ainbeste. .
Ezta gutxiago, ere...!

Zure inguruko guziak, par egiten diote zure uste
iñuzu orreri.

Zure burua goratze orretan, gezurra dariozu... Ez
dakit konturatuta edo konturatzeke, baña gezurretan
zabiltzala, ori danen bistan dago, zeure bistan ezpada-
go, ere... Itsua altzera...?

Zure jokabidea gezurretakoa da.

Ez da egizkoa, iñundik, ere...

—"Orduan, nere burua lurreraño jetxi beharko
det...!"

—"Ori ez litzake apala izaterik. Egia, ere, ez. Ditutunak aitortzea, egia da; ta apaltasunarekin konforme..."

Ditutun onak ukatzea ez litzake izango, ez egi ta ez apaltasunik.

* * *

Ditutun doaiak bere neurrian esagutzea, apaltasunaren egitekoa da.

Ez dituzunak, ez dituzula esagutzea, ere, bai.

Orra, egia!

Zere izakeraren doaiak beste batengandik artuta dituzu...

Nundik sortu zaizu arrokeri ori... ?

Urliak ta auzokoak baño geiago dezulako, arrotu...?

Aize-puztu... ?

Sorbalda gañetik bestiai begiratu...?

Txistua, goitik-bera, lagun-urkoari zu baño gutxigo dalako... ?

Billotsik eta narru-gorrian jaio ziñaten biok... Alaxe ilko zerate... Bitartean, bati bost, besteari bi ta irugarrenari talentu bakar bat... Bakoitzari eman zaion neurrian eskatuko zaio.

Geiago al dezu, lagun-urkoak baño. ? Kontu geiago eman beharko...

Orra dana zertan gelditu zaizun!

* * *

Arrokeriak ez dezu umerik ondo aziko.

Apaltasuna behar orretarako.

Ta Yainkoaren laguntza.

Arroak ez du Yainkoaren laguntzik.

ZURE ANTZEKO

"Umeak zer ikusi, ura ikasi".

Zer nai dezu zure umea izatea?

Gizon egiña? Egiaren maitale? Justiziaren serbitzuko? Maitasunaren zabaltzalle?

Zaude zu, bere aurrean, gizon oso ta emakume egiña.

Zaude, bere aurrean, egiaren maitale; gezurra dariola ba'zabiltz, nun ikasiko du zure semeak egia maitatzen... ?

Oker ba'zabiltza, zuzen ibiltzen nundik eta nola ikasiko du... ?

Gorritoak erretako biotza agertzen ba'diozu Juan-txori, nun ikasiko onek maitasuna... ?

Egia, zuzentasuna, maitasuna, iñoren eskubideen errespetoa... maite al dituzu...?

Egitan ta benetan?
Ala ortzetik kanpora bakarrik?

* * *

"Zer ikusi..."

Juantxo zuri begira dago egun guzian...

Zer ikusten du zu ikustean... ?

Zure antzeko izanen da. Zuk zer egin, uraxe egingo du.

On bidetik, oker bidetik ibiltzea baño zallago, gaitzago ta neketsuago izaten da beti... Alaz, ere, zu ona ba'zera bere aurrean, ona izaten laguntzen diozu zure aurrari; sermoirik ederrena ejemploa bai da...

Ikasbide ona erakutsi.

Ejemplo ona eman.

Ta Juantxok, zure ejemplo ta ikasbidetik ikasiko du ona izaten...

* * *

Ejemploaren bidea da biderik luzeen ta onena. Bide motzak ditu indarkeriak. Ona izateko Juantxo indarrez biurtzeak ez du frutu aberatsik emango.

Ez det uste.

Indarraren arrazoia baño ohea da arrazoiaren indarra... Umearentzat arrazoia, zure ejemplo ona da.

* * *

Persona geienak indarra gorroto dute.

Geienak esan det... Ta guziak esan beharko nuke; baña, zori txarrez, ba'dira indarra maite dutenak,

ere.. Besteen bizkar-gañean indarra probatzea gustatzen zaienak...

"Mal domado, buen domador" esan oi da erderaz: indarra beuren bizkarretik eraman ezin dutenak, dira, askotan, indarkerirako amorratuenak; baña, beti, indarran iñoren bizkarrerako.

Personen artean, ordea, animala biurtu ezpadira, beinlzat, indar utsetik probetxu gutxi dator... Probetxua bera baño, okerrak aundiago.

* * *

Juantxo-Txiki bere buruaren jabe egingo ba'dezu, persona bateri dagokion eran, indarraren bidetik ez baño zure ejemplo onarekin ezi beharko dezu...

Indar utsez ez dezu sekulan bere biotzik irabaziko.

Biotzaren giltza bere eskuan du, ta ez dizu aterik irikiko, zuk merezi ez ba'dezu.

Merezimentuak zure bizitz onaren bidetik lortuko dituzu.

Ez indarrez, beintzat.

Indarren kontrako miña ta griña, Juantxoren biotzetik, jaiotzetik dario...

Ordu artatik.

ITXARON BIDETIK

Erein.

Erein azi ona.

Erein azi ona, eten gabe.

Azirik onenak eta aukeratuenak...

Beñ azia ereñ ezkeru, ez da baserritarra bigaramonian juaten azia erne dan ikustera...

Erein ezkeru, lasai gelditzen da...

Presarik gabe ..

Ondo daki, gauzak ondo dijoztela. azia bere garaian erne ta burutuko dana ("aundia ba'naiz, txikia ba'naiz, maiatzian burutuko naiz")...

Ereinda bakarrik, lanak ez dira bukatzen... Jorrak, ondoren datozte...

* * *

Aziaren ardura izanen du baserritarrak: ernezeari begiratuko dio; baña, trankil, itxaron-bidetik, pazintzi askorekin Gauzak beren denbora behar dute...

Itxaropen-pazintzia ta denbora: orra bi gauza eder.

Itxaroten jakin...

Denbora artu...

Juantxo, oso nekez azten dan azia dezu.

Itxaron.

Denbora emaiozu.

Bere biotzean erein dituzun azi onak, bere garaian frutua emango dute...

—"Noiz, baña...?"

—"Yainkoak daki. Behar ba'da bere bizitzaren azken unean..."

—"Añ berandu..."

—"Garaiz litzake oraindio..."

Zure eginbeharra, lana egitea da.

Juantxoren biotzean, azi onak ereintzea...

Jorrakin laguntzea...

Euria ta eguzkia sort-araztea...

Baña, frutua ez dago zure eskuetan. Ez dizute orren konturik eskatuko...

Aldikoz, aldezakena bakarrik eskatu Juantxo'ri.

Alduena bakarrik egiñ arazi...

Bere ahalmenaren neurrian erakutsi...

Bat al da bere indarraren neurria? Bateko lana eman Izanen du biar biren indarra ta orduan emango diozu biren lana...

Biarko indarrak biarko lanentzako behar dute izan; baña biarko ahalmenari dagozkion lanak, ez gaur eman...

* * *

Itxaron.

Lana eskutik utzi gabe.

Pazintzi aundian.

Lana ez da alperrik sekula izango.

Yainkoak lagun.

GOGOR ETA BIGUÑ

Azia bezela umea, ere, egunero aldatzen dan iza-
kia degu.

Alda beharra berarekin daramana.

Ori ala ba da, umearekin darabilgun jokaera, ere,
aldatu behar degu tarteka...

Ejenploa ona da.

Juantxo ondo azteko biderik onena; bera aundi-
tzen dijoan bezela, ejenploak, indarra gutxiago...

Baña, Juantxo txikia dan artean, indargabea da-
lako, gurasoen indarren behar da... Indar maitekor
orren behar...

* * *

Umea ondo ezitzeko zeure buruari indar egin be-
harko diozu; ez bigunkeritik ibilli...

Zu indartsua izatea behar du Juantxok.

Indartsua ta leuna.

Gogorra barrutik ta biguña azaletik.

Giza-soña, ere, azaletik giar biguña izan arren, barrutik ezur gogorrak ditu; ta orrela, biguntasunik galdu gabe, gogortasuna ba'du zutik egoteko...

* * *

Juantxo'rekin biunkerian ari bazera, zugan duen ustea galduko du oro.

Beste aldetik, berriz, gogorkeri utsakin ez dezu ezertxo, ere, lortuko.

Biguña ta sendoa alkarrekin batean behar dute, umea ondo eziko ba'degu...

Orretarako, zure buruaren jabe behar dezu izan eta agertu. Ta, umeak orrela ikusten ba'zaitu, zure esanetara etorriko da bera.

Beztela, ez.

* * *

Obearen billa beti ibiltzea, onaren aurka jokatzea izaten da askotan: ohea billatu ez, ta bitartean, ona galdu...

* * *

Aukeratzea, aukeratze ez deguna galtzea da.

Bat artu ta bestiak utzi.

Yainkoak ba'giña danak batean izango giñuzteke; toki guzietan batera egongo giñake... Baña, ez

gera gu Yainko, ta nai ta nai ez, askotan, aukera egin behar...

Aukera egiñ, eta utzi behar dezuna, utzi.

Aukera egiñ ezker, segi aurrera, atzera begiratu gabe.

Aukerak egiten erakutsi Juantxo'ri.

Eta, aukeratu ez ditunak, galtzen, ere, bai...

Ala ezitzen bai da gure gogoa, gure borondatea.

* * *

Baña, zaude zu beti trankil.

Bururik galdu gabe. Zuk burua galtzen ba'dezu, Juantxok, zer...?

Uskeri bategatik ez gerrarik armatu... Par egitea obe zenduke, askotan...

POZ DARIO

"Arren, irripar egizu".

Zure aurre ondo eziko ba'dezu, irriparra ta alaitasuna behar-beharrezkoak dituzu.

Zabaldu zure inguruan alaitasuna ta poza.

Zergaitik beti goibel ibilli?

Illuna baño argia ohea ez al da?

Zeure inguru guziak argitu itzatzu...! Ta zuk argitutako inguru oiek zeorri argigo egingo zaitue. .

Orra zeu, ere, irabazian.

Besteentzako erabilli dezun argi orrek, argitzen zaitu zeu, ere...

* * *

Illuna zabaltzen ba'dezu inguruan, inguru ortako illunak illunago egingo zaitu...

Ingurua illundu dezu, zeure argalkeriz.
Ta illun orrek illunago egin zaitu, oraindik...
Irabazi eskasak...!

* * *

Nik nere inguruan zabaltzen detana, ori berbera biurtzen didate nere ingurukoak; baña, aundituta...

Nik poza zabaltzean, neure ingurukoen pozak pozten nau geiago: poz ori zabaldu ala, aunditzen zait ingurutik datorkidan poza .. Ta berdin negarrakin, ere: nere tristurak zabaltzean, tristura geiago dator kit biotzera, inguru guziak tristau bai ditut... Nere asarrearekin, oro bat...

—"Oiek ala ba'dira, nere barruko okerrik agertzerik etzait komeni..."

—"Lagun bakar bateri agertzea ona da; baña, gaitz oiek zure inguruan zabaltzerik etzaizu iñundik ere komeni..."

—"Orduan, zer...?"

—"Argia, poza, alaitasuna, biotz-ona agertu ta zabaldu. Inguruko guziak izango zerate irabazian..."

—"Ta txarrakin, zer...?"

—"Illuna, naigabea, okerra, bildurra, tristura, umore txarra, oiek biotz-muñean gorde, zazpi giltza ta maratillekin itxi... Al ba'dezu, beintzat. Ezin ba' dezu, juan txoko batera negar egiten; danen aurrean egiten ba'dezu, danen kalterako izango da, ta.

* * *

Gogo illuna al dezu?

Argitu zazu, mesedez, arpegi ori; argia zabalduko ba'dezu. Ta gogoan izan zure aurrak argi asko behar dutela bere inguruan, ondo aziko ba'lira.

Landararik ez da azten argirik gabe.

Zure umeak argi asko behar duten landaratxoak dira.

Argitu beuren buruak, beuren gogoak indartu, on guzien aziak erein beure animetan.

Zenbat eta ahalmen gutxiago ta ainbat zure argiaren egarriago, umetxoak... Etzitzetzu iUundu ta zapaldu... Euren indar apur oiek ezitzetzu uxatu...

* * *

Zure buruakin aaztu ta bestien onari begiratu.

Zureari begiratu gabe, ekin bestien zoriona sort-arazten... ta zure biotza, poz-iturri izango zaitzu...

Poz-iturri zeuretzat.

Poz-iturri zure ingurukoentzat.

ETEN GABEKO EKIÑEAN

Juantxok jolas-gurea dauka?

Jolasean lagundu egiozu...

Berarekin jolastu zaitez..

Jolasean erakutsi...

Zergatik, ez?

—"Tira, tira, umekeririk esan gabe... Ederki eman, ere... !"

—"Oso ederki emango zenduke, eman, ere..."

* * *

Egun-pasa dijoazenean, zenbait gurasok usten dute, umeak jolastu behar dutela, baña, beurok, ez.

Eurak serio-serio ibilli: beruna baño astunago, gau-illuna baño illunago...

Argirik, ez..

Alaitasuna sortuko ba'da, umien aldetik sortu behar
harko du; gurasoak ez dute ezertxo, ere, egingo alai-
tze aldera...

* * *

Ez, guraso, ez.
Ori ez litzake izan behar zure jokabidea.
Zeuk alaitu behar dituzu zure seme-alabak. Ez
eurak, zu.
Lagundu, beintzat.
Ta jolasean erakutsi.
—"Ez dakit oraingo jokurik..."
—"Zaharrak erakutsi edo berriak ikasi, erakus-
teko..."
Zure Juantxo'ren lagun izateko bide errezagorik
jolasa baño, ez dezu bela topatuko...!

Jolasa, tranparik gabe.
Jolasean tranparik ez dala egin behar erakutsi
Juantxo'ri.
Jokuaren aginduak bete ta bete arazi.
Ondo galtzen, ere, ikasi behar da...
Irabaslea, saritu; ta galtzalea zoriondu, garbi jo-
katu duelako...

* * *

Kanta-kantari...
Ori, ere, jolasa degu; ta oso zaigu gogoko Eus-
kaldunoi.

Jolas pozgarria da.

Ta zuk, kanta zaharrak eta berriak ikasi ta erakutsi Juantxo'ri...

Orfeoi bat etxian sortzea, ez da edozein eskuetan dagoen gauza errexia; baña, etxekoak alkarrekin abes-
tea, zein dan zoragarri... !

* * *

Musika ta abestiak ba'dute gizona ezitzen laguntzeko ahala.

Ezi-bide bat degu.

Gaurko egunez, edozein musika klase eskuan ditugu... Musika ori bereizten erakutsi Juantxo'ri...

Gustoa ta belarriak ezitzen lagundu...

Zure seme-alabak, ume-umeetatik, Euskalerriko musika ederrean murgildu itzazu...

Zer nolako da zuk Juantxo'ren aurrean egiten de-
zun otoitz ori... ?

Zu ikusiakin bakarrik, ikasiko ote du Juantxo'k
otoitzean... ?

Yainkoa bizi dala...

Yainkoa urbil degula...

Yainkoak itz egiten digula...

Yainkoak entzuten digula...

Orra Juantxok, zure otoitzetik ikasi behar ditu-
nak. !

Zuk oiek sinistu.

Ta, sinistuta, otoitz egiñ, Juantxo testigu dezula. .

* * *

Gozo otoitz egiñ.

Sinismenez ta maitasunez betetako otoitzak.

Baña, motx.

Baña, labur.

Otoi luzeak aspergarri ditu Juantxo'k.

Etzazula aspertu-arazi...

Berak otoitz egiñ behar duanean, itz oiek zer esan
nai duten agertu egiozu... Ta otoitza bera zer dan,
ere, bai.

* * *

OTOITZEAN

Juantxo-Txiki Yainkoaren seme ba'da, Yainkoarekin artu-emanak izango ditu.

Artu-eman oiek, itzaren bidez, agertze oi dira (geienetan) esaupidea duten izakien artean...

Itza.

Itz egiñ.

Yainkoakin itz egiñ, ori da otoitza.

* * *

Umea jaio aurretik, *bere alde...*

Jaio ta gero, *bere aurrean...*

Geroago, *berarekin batera...* otoitz egiñ behar oi dute gurasoak.

"...zer ikusi..."

Espiritu Pozemallearen laguntzarekin ta Juantxo-Txikiren libertatea dala medio...

Juantxo-Txikiren naia beteko da beti.

* * *

Juantxo'ren gorputza azi, sentimentuak edertu, adimena argitu, borondatea ondu ta sendotu...orra gurasoen zenbait eginbear eder...

Baña, umea kristau dan aldetik, bere biotzean, Ba-taioaren bidez ereindako azia bere elburura iritxi de-diñ ere, gurasoen laguntza bearrezkoa dala, esan ge-nezake...

Lan ederrik iñun ba da, umeak aztea lanik ede-rrena!

Negozioak dirala ta, nola, Juantxo aztuta, zabil-tza?

Negozio oberik... ?

Ta ederragorik... ?

Erreza eztala? Ortan arrazoi bidetik zabiltz. Erre-za ezta. Baña zure bizitzan, gauza erreza etziranak egin dituzu makiña bat...

Zeure giza-barnean billatuko dituzu bear aña in-dar ta argi.

Eta, Goi-goikoak ere etzaizkizu paltako lan orre-tarako...!

Kalizen antzera Juantxo ere, Yainkoaren gorde-leku izanen bai da.

* * *

Bere biotzean, Juantxok, bataio egunean artuko du Yainkoaren Biziaren azia.

Azi txikia, azi guztiak bezin txiki.

Baña azia azteko da.

Bere elburura eltzeko.

Bere elburua: lorea ta frutua, lore ondoren.

Bataioko azi orrek Betiko bizitzarako lore eta frutu emango ditu...

Azi orixe da: basamortua bizi-arazten duan ur bizi...

Yainkoaren seme egiten gaituna...

Seme ba gera, oñordezko ere bai...

Betiko Bizitzarako oñordezko.

* * *

Elburu orretara irizteko bear diran indarrak, guztiak ditu berekin azi orrek:

Mundu onetan elburu ori santutasunean dago...

Kristo'ren Gorputz Mistikoaren zatiak bear degu izan...

Zati osotuak...

Zenbat galtzeko arrixkutik pasa bear duan azi orrek...!

Zenbat gau luze ta negu gogor...!

Gurasoen ardura, gurasoen oloitzak. bearrezkoak.

JUANTXO-TXIKI, YAINKOAREN SEME

Orijenes, antxiñako kristau-idazle famatuak, bazuan semetxo bat.

Seaskan.

Etixeratzean, seaskari urreratu ta, bere Juantxo-Txiki'ren bular gañean, musu emate oi zion... Yainko'ren bizitza bai zan, arnasak gora ta bera zebiUen bulartxo ura.

Yainko Altsuaren etxe-bizitza, umearen biotza.

Eder da.

"Irten, deabru likitz ori, ume onen biotzetik eta egin leku Espiritu Santu Pozemalleari...".

Mezatarako kalizak igurtzitzen diran bezela, igurtziko dio apaizak Juantxo-Txiki'ri bularra olio sagra-tuaz...

Zigor onek indar izugarria izango du, umeak maite ba'zaitu.. Maiteago zu ta miñago zigorra... Maite ezpazaitu...!

* * *

Ez zigortu asarre zauden une orretan, etziñake neurritsu izango ta..

Ezta zeure asarrea baretzeko, ere: justizitik kanpora ibilliko ziñake, ta umea, zu nundik zabiltzan, konturatu, ere, bai...

Gutxi zigortu...

Gutxitan zigortu...

Behar-beharrezkoa ezpada, ez zigortu...

Maitetasuna ukatzea izan dedilla zure zigorrik aundiena.

Zigorra Juantxo sendatzeko da. Okerra sendatuko ez duan zigorrik ez sekula erabili...

* * *

Zigorra baño ohea dezu saria.

Ondo saiatzen danean, saritu Juantxo-Txiki.

Saritu bildurrik gabe. Sari aukerakoak billatuko dituzu. .

Zure umeak sekulan saritu dituzu ondo portatu diralako... ?

Juantxo'k artu ditun jipoi ta belarrondokoak entzutekoak izan dira... Baña, etzuan Juantxo'k errurik; errua zuk izan dezu, mai gañean tinta-botilla itxigabe utzi dezulako...

Zeure burua astindu behartzenduke.

Ta umerik ikutu, ez.

Zurea izan da errua.

Ez, umearena.

* * *

Etxean, eztabaida ondoren, ekin dio Juantxo'k ostikoka bere neskameari. ta, or zaude zu, ao zabalik begira, zirkiñik egiñ gabe, ajolik ez ba'lizu bezela... Neskamearen anka-ezurak ez bai dizu zuri miñik ematen.

Orain asi behartzenduke zirt eta zart, geldi egon gabe.

Orrelako okerrik ez da barkatu behar...

* * *

Zer egiñ?

Oker portatu ba'da bere gogo gaiztoz, oker egin duela erakutsi ta agertu... Ori da lenengo eginbeharra...

Bere okerra esagutzen ba'du, irabazi dezu Juantxo'ren biotza.

Zigortu behar ba'dezu, maitekor zigortu: ikusi dezala maite-miñez zigortzen dezula...

Zigorrik onena... ?

Zure maitasun-agerpenak ukatzea Juantxo'ri.

SARI TA ZIGOR

Juantxo'k okerra egindu...?
Zirt-zart ! Zipli-zapla...!
Belarrondokoak ugari...
Ori, ez ..!

Zigortzea baño ohea da, onez itz egitea.

* * *

Bere okerra uste gabekoa izan ba'da, ez du zigorrik merezi, iñundik, ere...

Zuk maiko mantel zuri gañean ardo basoa edo tinta-botillatxo utzi dezu aaztuta. Bitartean, or nun datorren Juantxo-Txiki jolasgure biziakin, ta mantel ertzari tira dio, baita zure baso ardo edo botilla uztu, ere, mantel zuri gañera...!

Jolas pozgarria da.

Ta zuk, kanta zaharrak eta berriak ikasi ta erakutsi Juantxo'ri...

Orfeoi bat etxian sortzea, ez da edozein eskuetan dagoen gauza errexia; baña, etxeoak alkarrekin abes-tea, zein dan zoragarri... !

* * *

Musika ta abestiak ba'dute gizona ezitzen laguntzeko ahala.

Ezi-bide bat degu.

Gaurko egunez, edozein musika klase eskuan ditugu... Musika ori bereizten erakutsi Juantxo'ri...

Gustoa ta belarriak ezitzen lagundu...

Zure seme-alabak, ume-umeetatik, Euskalerriko musika ederrean murgildu itzazu...